

HITZAURREA

2016ko abenduaren 21ean hogeita bost urte bete ziren Jose Miguel Barandiaran hil zela, eta Fundazioak Ataungo Sara Etxean antolatutako ekitaldian Barandiaran nor izan zen eta euskal kulturari eginiko ekarpen handia eta bestelakoak gogora ekartzeko baliatu zen eguna. Aurretiaz, urria eta abendua bitartean, **“Europa, Barandiaran eta baloreak”** izenburupean Euskal Herriko hiriburu nagusienetan mahai-inguruak garatu ziren, eta haietan parte-hartzaile izan zen **Argitxu Camusek** Ataungo ekitaldian egindako saio horien ekarpenen laburpena jaso nahi izan dugu Eusko Folklore Urtekariaren 51.ale hau irekitzean.

Kulturaz ari gara. Baina, zeri deitzen diogu *kultura* XXI. mende hasiera honetan? Nolako lekua eta funtzioa esleitzen diogu kulturari gure jendartean? Antzeko galdera anitz egiten jarrai dezakegu; galdera ugari, baita erantzunak ere, segur aski. Eta ez lirateke gutxiago

PRÓLOGO

El 21 de diciembre de 2016 se clausuraban en Sara Etxea, Ataun, los actos que con motivo del 25 aniversario del fallecimiento de José Miguel Barandiaran ha venido organizando a lo largo de ese año año la Fundación que lleva su nombre. El objetivo era recordar a la sociedad vasca la pertenencia de Barandiaran al acervo cultural de toda Vasconia y reivindicar los valores que cultivó en su larga vida. Hemos querido abrir este número del Anuario de Eusko Folklore recogiendo las palabras de **Argitxu Camus** en dicho acto, resumiendo las aportaciones de los participantes en las mesas redondas celebradas previamente, entre los meses de octubre y diciembre de 2016, bajo el lema **“Barandiarán, Europa y los valores”**.

A partir de ahí, hemos planteado a distintos investigadores actuales una reflexión sobre lo que se entiende, en su opinión, por cultura, euskal kultura/cultura vasca en los primeros años del siglo XXI; ¿Qué espacio y qué función le reconocemos

izango bai batzuk bai besteak, *kultura* terminoari *euskal* kalifikatzailea aurrean jarriko bagenio.

Kultura, euskal kultura, kulturgingintza, euskalgintza, ... Gai-jartzaileak bezala arituz, ez bertsoarako, gogoetarako baizik, kontzeptu horien inguruan eskatu diegu ikerlari desberdinei beraien ekarpenak egin ditzaten, eta hemen jaso ditugu horietako batzuk: **Ibai Iztuetak**, orain gutxi argitaratutako bere '*Cultura Vasca vs. Euskal Kultura*' liburuan luze eta era zabalagoan esandakoak jaso ditu ***Euskal hizkuntza eta kultura*** lanean; **Ane Larrinagak** ***Euskararen aldeko mugimenduaren bilakaera. Interpretaziorako proposamen bat*** artikuluan euskararen aldeko mugimenduak 80ko hamarkadatik gaur egunera arte izandako bilakaeraren alderdi batzuk aztertu ditu; Euskal Herri kontinentaleko kulturaren (antzerki amateurra, bertso-larritza, musika sorkuntza, idazle gazteak, ...) osasunari hartzen dio neurria **Eneko Bidegainek** ***Euskal kulturaren aitortza Ipar Euskal Herrian: txanponaren bi aldeak*** deitu dion lanean.

Hortik aurrera, egile desberdinek igorritako ekarpen libreak jaso ditugu **Eusko Folklore Urtekariaren** 51. ale honetan: **Urkiri Salaberriaren** ***Cultura vs. cultural***; **Maialen Morenoren** ***XX. mende hasierako toberetako bertso-sortak***; **Montserrat Ocioen** ***Las plazas de toros en Álava***; eta **Ricardo Gurbindoren** ***El garapito y los garapiteros***, hurrenez hurren. Eskerrik asko guztioi.

Eusko Folklore Urtekariaren ale hau inprentara bidaltzeko prest genuela

a la cultura en esta nuestra sociedad actual? ¿Hacia dónde caminamos? ¿Qué relación perciben entre lengua, cultura, identidad? Reconociendo que las respuestas a tantas preguntas deben ser necesariamente múltiples y diversas, y que no pueden reducirse al espacio y formato de esta publicación, sin embargo, y como una primera aproximación al tema, presentamos en la primera parte de este número del Anuario sus aportaciones: **Ibai Iztueta**, en el trabajo titulado ***Euskal hizkuntza eta kultura***, reelabora y desarrolla las ideas expuestas de forma más extensa en su reciente publicación "Cultura Vasca vs. Euskal Kultura"; **Ane Larrinaga** en su artículo ***Euskararen aldeko mugimenduaren bilakaera. Interpretaziorako proposamen bat*** anliza diversos aspectos del movimiento en favor del euskara desde la década de los 80 del siglo pasado hasta nuestros días; **Eneko Bidegain**, por su parte, en su trabajo ***Euskal kulturaren aitortza Ipar Euskal Herrian: txanponaren bi aldeak*** trata de tomar el pulso a la actualidad de la producción cultural en la Euskal Herria continental (teatro amateur, bertso-larritza, creación musical, literatura actual, ...).

La segunda parte de este número 51 del AEF recoge colaboraciones de diferentes investigadores sobre temas diversos: ***Cultura vs. Cultural***, de **Urkiri Salaberria**; ***XX. mende hasierako toberetako bertso-sortak***, de **Maialen Moreno**; ***Las plazas de toros en Álava***, de **Montserrat Ocio**; y finalmente el trabajo sobre ***El garapito y los garapiteros***, de **Ricardo Gurbindo**. A todos ellos nuestro agradecimiento por su colaboración.

etorri zitzaigun benetan tristatu gintuen berri txarra: Karmele Goñi anderearen heriotza. Etnografoa, historiagilea eta euskaltzalea, bera izan zen **Eusko Folklore Urtekariaren** argitalpenari, 1936an etendako edizioaren jarraipenari, berrekin ziona, 1955ean, Aranzadi elkarteke Etnografia eta Antropologia alorreko arduraduna zela. Bilboko Euskal Museoa, zeinaren zuzendari ere izan baitzen Karmele Goñi, izan zen “Europa, Barandiaran eta baloreak” mahai-inguru zikloaren bigarren geltokia, 2016ko azaroaren 3an. Bertan, Gaspar Martinez hizlariak honakoa adierazi zuen: *“Oso toki aproposa da Bilboko Euskal Museoa mahai-ingurua egiteko, izan ere, Barandiaran bera hainbatetan gonbidatua izan zen bertara. Gainera, Karmele Goñi, museoko zuzendari ohia eta Etniker taldeen bultzatzaileetarikoa bat entzuleen artean edukitzea paregabea da”*. Euskarari, euskal kulturari eta gizarteari eman diezun guztiagatik, Karmele, har ezazu gure aitortzarik zintzoena eta esker ona.

A punto de entrar en imprenta este número 51 del AEF recibimos la triste noticia del fallecimiento de la etnógrafa, historidora y euskaltzale Karmele Goñi. Ella fue precisamente, quien siendo entonces responsable de la sección de Etnografía y Antropología de la Sociedad Aranzadi, reinició en 1955 la edición del Anuario de Eusko Folklore, interrumpida desde 1936. El Museo Vasco de Bilbao, del cual fue directora Karmele Goñi, fue la segunda parada del ciclo de mesas redondas “Europa, Barandiaran y los valores” que se realizó el pasado 3 de noviembre. En su intervención, el ponente Gaspar Martínez hacía la siguiente reflexión: *“El Museo Vasco de Bilbao es un lugar muy apropiado para esta mesa redonda, ya que el mismo Barandiaran fue invitado aquí numerosas veces. Además, tener a Karmele Goñi, ex-directora del Museo y una de las propulsoras de los grupos Etniker entre el público es extraordinario”*. Sirvan estas pocas líneas para manifestar nuestro más sincero reconocimiento y gratitud por su labor y su aportación al euskara, a la cultura vasca y a la sociedad vasca en su conjunto: eskerrik asko, Karmele.

Abel Ariznabarreta Zubero

*Eusko Folklore Urtekariko zuzendaria
Director del Anuario de Eusko Folklore*



Karmele Goñi, EFUko zuzendari Abel Ariznabarretarekin eta Gaspar Martinezekin batera, “Europa, Barandiaran eta baloreak” mahai-inguruan, Bilboko Euskal Museoan, 2016ko azaroaren 3an.

Karmele Goñi, junto con el director del AEF y Gaspar Martínez, en la mesa redonda “Europa, Barandiaran y los valores”, en el Museo Vasco de Bilbao. 3 de noviembre de 2016.